

PIERRE LOTI-REN RAMUNTCHO ELEBERRIAREN ZORITXARRA DIKTADURAPEAN



Idazle bezala hain ospetsua izatera heldu zen Pierre Loti nork ez du ezagutzen? Frantziako Rochefort-sur-Mer hirian jaioa zen 1850. urtean, baina bere bataiozko izen-deitura jatorrak Julien Viaud zituen.

Munduan zehar Frantziako marinaren ofizial bezala egin zituen ibilaldiak bere idazkietan azalduak zituen, batez ere Asia aldekoak ditu ibilaldirik bitxienak, oroitidazkietan zein eleberrietan txukun agertu zituenak erakusten dizkigutenez. Bere eleberrietako pertsonaien irudiak beti bikain aurkeztu zituen Pêcheur d'Islande hartan Jan arrantzalea bezala edo Aziyadé zein Madame Chrysanthème kuttunak, Rarahú eta abar.

“Javelot” zeritzan itsasontziaren arduraz etorri zen Bidasoa aldera 1891 urtean, Hendaiako Durruti sendagilearen “Bakar etxea”n bizitza kokatzeko. Lehenik ez zuen gogoko izan inguru hau, baina denboraren buruan eta D'Abbadie anderearen laguntzaz gure Euskal Herri honen ezagutza egin zuen eta hemen igaro zituén bere bizitzako azken urteak, 1923ko ekainaren 10ean “Bakar etxea” hortan hil zen arte.

Bere ustez, Duhourcau-k zioenari jarraituz, Baskonia oso merezia zen bere inguruan anakide dituen Frantziako Biarno, Bigorre eta mugazemendiko partearekin. Euskal Herriak gordetzen bai zituen bere baitan indoeuropear zibilizazioaren oinarriko elementuak, arbasoen etxea inguratuari bat eginik bere arrazaren izpiritu jatorrez, bere aldare eta hilobiak, bere ohiturak, lanbideak, jolasak eta hizkuntza, argitara azaldu gabe, mendeak zehar biziaz.

P. Lotik Ramuntcho (Paris, 1896) eleberria Euskal Herria ezagutzen lagundu zion D'Abbadie andereari eskertuz eskaini zion. Ordurako idazle ospetsua zen, bereziki sorkaldeko Ekialdeaz idatzi zituen eleberriegatik. Haien erara, hemen ere, paisaiatz gainera herriaren ohiturak azaltzen ditu bere argudioan, baina Ramuntxo oinarri duelarik.

Iparragirreraren hitzak hartuz, 1908 urtean, idatzi zuen “Adio Euskalerrria!” artikulu hartan aitortzen zuenez, bere adiskide Otharre azkaindar pilotariarekin ikasi zituen pilota eta kontrabandutzaren gora-beherak, baita hortarako muga inguruan erabiltzen zituzten bideak ezagutu ere, maiz Tambul zeritzan bere zaldi gaztearen gainean.

Ramuntxo pertsonaia honen bizitzaren ingurutzat Azkaine eta Bidasoaren bazterrak dira, bere ekintza nagusia, egunez pilotari eta gauez kontrabadugintza, amaganako eztimina zein Graziosa andereñoarekiko maitemindura hor ditu eleberri atsegin horrek.

Aspaldi irakurri nuen Ramuntcho, Barcelonako Editorial Cervantes-ek 1944an “Los principios de la Literatura” sail hartan argitaratua, Manuel de Montoliu zenak itzulia. Atseginaz irakurri ere, gure herriaz ezer guti argitaratzen zen garaian. Geroago aurkitu dut hura baino lehenagoko beste itzulpen bat, Thomas Nelson and Sons, Ltd. Argitaletxeak mendearen hasieran Edimburgo-n (Escocia) argitara emana, Condesa de Pardo Bazán-en hitzaurrez eta, berriz irakurtzean, konturatu nintzen lehendik nuena frankistek zentsuratua izan zela. Harritzekoa benetan Pierre Loti frantsez ospetsuaren testua ere errespetatu eza.

Bilbon, La Gran Enciclopedia Vasca argitaletxeak 1973an argitaratua, zorionez, Edimburgo-n argitaratuaz baliatu zen, Pardo Bazán-en hitzaurreari Luis Castresanarena gehituz. Frantsesez edo gazteleraz, Bidasoa inguruko edonorrentzat irakurgai egokia iruditzen zait.

Ramuntxok bere ama gipuzkoarra zuen eta soldadutza egiteko garaian Frantzian edo Espainian egitea hautatzeko eskubidea zuenez gero, galdetu zitzaionean non egin nahi zuen, amak Frantzian naturalizatzea eskatzen zion; berak ordea, berdin zitzaiola, zein batean edo zein bestean, bera izatez euskalduna zelako.



Hara horren lekukotasunezko adibide bat, 1944ko argitalpen horrek, bere V parteari dagokionez (66 orrialdetik) non kendu zion, frantsez jatorrizko testuari honako hau:

"-Vrai, c'est ton idée?... Eh bien, tant mieux, car c'est la mienne aussi. Oh! mon Dieu, Français ou Espagnol, moi, ça m'est égal. A ta volonté, tu m'entends! J'aime autant l'un que l'autre; je suis Basque comme toi, comme nous sommes tous: le reste, m'en fiche! Mais, pour ce qui est d'être soldat quelque part, de ce côté-ci de la frontière ou de l'autre, oui, je préfère ça; d'abord on a l'air d'un lâche quand on s'esquive: et puis, c'est une chose qui me plaira, pur te dire franchement. Ça et voir du pays, c'est mon affaire tout à fait!"

Gezurra dirudi hori kendu beharra. Baina, izan ere, ondo pentsaturik, euskara hiltzora eraman zuten militar horientzat ez bai zen Euskal Herririk.

Beste urte batekoa zen gure herria ezagutzera eta maitatzera iritsi zen Pierre Loti idazlea, 1908 urtean Hendaian "L'agonie de l'Euskalerra" idatzi zuena. Militarra zen, baina horrez gainera liberal eta humanista. Bestalde gogoan eduki idazle hau

mundu guzian zehar asko ibilia zelako ikasi zuela herri bakoitza bere ra natural eta jatorrean errespetatzen.



JUAN SAN MARTIN

BAR - RESTAURANTE

San Pedro Kalea, 22
Tel.: 943 64 56 11
HONDARRIBIA

Miryam

GAN EXPERIENCIA en Cursos

CENTRO DE ESTUDIOS INFORMATICOS

PERSONALIZADOS

☎ **64.53.52**

C/ LAPURDI, 8-1º Izq. - PUNTAL-
HONDARRIBIA